

LETREN FAKULTATEKO ARAUTEGIA: TALDEA/HIZKUNTZA ALDATZEA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ikasturte bakoitzean argitaratzen duen Graduako Ikasketen Gestiorako Arautegiak ezartzen duenez, ikasleei dei egiten zaie matrikula egiteko, batez besteko sarrera notaren arabera ordenatuta ikasle berrien kasuan, edo espedienteko kalifikazioetan oinarrituta goragoko mailetakoko ikasleen kasuan.

Ikasleak nahitaezko irakasgaietako irakaskuntza taldeetara esleitu ahal izango dira Letren Fakultateko Ikastegiko Batzarrak onartutako irizpidearen arabera. Behin maila/hizkuntza batean matrikulatu ondoren, ikasle bakoitzak taldez aldatzeko eska dezake. Eskaren kopurua taldeko plazen kopurua baino handiagoa bada, ikasleak irizpide objektiboen arabera banatuko dira taldeetan. Irizpideok argitara emango dira taldez aldatzeko eskaerak egiteko epea hasi baino lehen.

Bat etorrita aipatutako arautegiarekin eta unibertsitateko ikasleei buruz indarrean dauden gainerako arauekin, Letren Fakultateko Batzarrak hau onartu zuen 2020ko uztailaren 15-(e)an egindako bilkuran.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Taldeak lehenbailehen behin betiko itxita egon behar direnez, eskaera eta hori bermatzen duen justifikazioa aurkeztu beharko dira ikastegiaren webgunean argitaratutako izapide akademikoetarako egutegian adierazitako epearen barruan. **Irailaren hasieran epe bakarra egongo da, bai lehen lauhilekoko irakasgaietarako, bai bigarren lauhilekoko irakasgaietarako, eta Letren Fakultatearen webgunean argitaratuko da.** Eskaerak web orrian argitaratutako inprimaki baten bidez aurkeztuko dira. Kanpoan geratuko dira epez kanpo aurkeztutako eskaerak edo beharrezko egiaztagiriekin batera aurkezten ez direnak.

Bigarren lauhilekoko irakasgaietarako, baldin eta, **salbuespenez**, eskaeraren oinarrian dagoen zioa atal honetan adierazitako eskaerak aurkezteko ohiko epea amaitu ondoren gertatzen bada, ikasle interesdunek **bigarren lauhilekoa hasi aurreko astean aurkeztu ahal izango dute eskaera.**

Taldez aldatzeko irizpideak:

- Taldez aldatzea **maila bereko beste irakasgai batekin ordutegi talka** dagoela eta.
- Taldeak ezabatzeagatik sortutako aldaketak edo ikasturtea hasi ondoren izandako ordutegi aldaketengatik.
- Graduetan eskainitako ibilbideetako bat osatzea.
- Hirugarren hizkuntza baten edo D hizkuntzaren ibilbidea osatzea.
- Taldez aldatzea, hizkuntza dela-eta (**ingeleseko taldeetan bakarrik onartuko dira matrikula eskaerak**).
- Ikaslea irakasgai baten 5. edo 6. deialdian matrikulatuta dagoenean.
- Lan ordutegia bateragarri egitea (lan kontratua aurkeztuta).
- Senideen zaintza eta arretarekin bateragarri egitea (erantsi aldundiak edo beste erakunde eskudun batek emandako ziurtagiria).
- Goi mailako beste ikasketa ofizial batzuekin bateragarri egitea (frogagiria aurkeztea).

- Beste jarduera batzuekin bateragarri egitea (kargu politikoak, sindikalak, ikasleen ordezkartza).

Eskaera kontuan hartuko da baldin eta goian aipatutako kasuetako bat betetzen badu soilik. Izapidetzea onartu ahal izateko, eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da eskaerak aurkezteko ezarritako epean. Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean, eskaera ezetsi egingo da.